

## Liburutegiaren eguna

KARLOS LINAZASORO

Orain guztiok eta gauza orok baitaukagu gure egun zorioneko edo urteurrena, datorren 24an, ostiralez, Liburutegiaren Eguna ospatzen da, horrela, singularrean. Lurbira osoan, gainera. Pentsatzen dut efemeride handi hau ospatzeko festa ludikoak, irakurraldi goxoak, ipuin kontaketa xebreak, hitzaldi buru-tsuak, emanaldi poetikoak eta nahi den guztia izanen dela, eta gehiago ere bai. Liburutegia Unibertso propio, jakituriarazko eta amaigabea da, beste Unibertso handiago baten baitan txertatua bizi dena. Horregatik merezi du ospakizun eta aldarrikapen eta gogorarazte hau. Alferrik izanen da guztia, jakina, baina etsipenari ezin diogu bidea gehiago zabaldu. Azken urteotan gainera gauza asko egin dira liburutegietan, asko hobetu dira zerbitzuak (komonak, batez ere), eta politikariek ulertu dute azkenean liburutegi txukunik gabe ez goazela inora, haitzulo hezeetara ez bada behintzat. Horregatik, orain, jabetu dira bakea bera dela bidea eta erdera ere gurea dela eta begiak malkotan badauzkazu ez duzula eguzkirik ikusiko eta jokia ez dela errenta eta liburua dela gizakion lagunik onena (eta zakurra, noski)... Hori guztia liburuetan idatzita baitago, lagunak! Beraz, komeni da jendeak irakur dezan, ez askorik baina bai apurño bat, eta horretarako eraikiko ditugu eraikin dotoreenak eta jauretxeak eta komentu antigualekoak, kulturaren trenik inportanteena gal ez dezagun. Besterik da gero tenplu horiek zerekin betetzen ditugun, zer arreta eta zer diru eskaintzen diegun... Denetarako ez baitu ematen diru publikoak, eta beti dago azoka edo periren bat antolatu beharra, edo zernahi besterik, gure jakituria zaharrari eutsiko diona.